

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2012ko martxoaren 7a. IX. urtea. 2.373. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Alegiako San Juan eskolak biodibertsitatea landuko du Agenda 21ean

Alegiako ikastetxeak eta udalak hitzarmena sinatu dute; gazteak etorkizuneko eredia direnez, konpromisoa hartzea da helburua ◦2



San Juan eskolako eta udaleko ordezkariak, udaletxeko batzar aretoan. E.M.



Unai Otaño eta Joseba Otaegi, txapela eta garaikurrekin, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan. IBONERRAZU/HITZA

Aurrera egiteko indarra eman die txapelak Otaño eta Otaegi aizkolariei

Urrezko mailan lortu dute saria Unai Otaño ibartarrak eta Joseba Otaegi zizurkildarrak, Anjel Arrospide leaburuarra txapeldunorde utziz; Saralegi leitzarra, segundo batengatik txapeldun gazteetan ◦7

Tolosaldeko Herrira mugimendua aurkeztuko dute, bihar

Tolosako kultur etxean elkartuko dira; herritarrak deitu dituzte bertara ◦3

Atez atekoaren sistema eztabaidatuko dute, bihar, Villabonan

Bilduk eta EAJk mozio bana aurkeztuko dute; sistemaren alde egingo du udalak ◦3

Tolosako PSE-EEK atez ateko hondakin bilketa «erabat» baztertzen du

Bosgarren edukiontzia alde azaldu da, eta atez atekoa «zikina» dela dio ◦2

Igor Aranburu eta Maider Gaztañaga, bikain neguko triatloian

Euskadiko txapelketa eskuratu dute; Garmendia, bigarren beteranoetan ◦6

Garmendia alegiarra txapelarik gabe geratu da Promozio Sarian

Berria Txapelketaren finalerdietarako sailkatu da Aurrera-Saiatz ◦6

Inauterietan **hitza** eguneroko argitaratuko dugu!



Inauterietako Argazki lehiaketa



• Saria:

Bizkaiko Ajangiz herrian dagoen **Astobietan nekazal turismoan** bi pertsonentzako gau bateko egonaldia eta gosaria.

• Argazkiak nora eta noiz bidali:

thargazkiak@hitza.info helbidera martxoaren 9a bitarte Argazkiek gutxienez 20 zentimetrokoak eta 300 ppp-ko bereizmena izan behar dute.

Parte hartuko duten argazki guztiak ikusgai izango dira Inauterietan tolosa.hitza.info webgunean!

PSE-EE atez ateko sistemaren aurka azaldu da

Tolosako ordezkariak, sistema hori herritarren osasunaren aurkako sistema dela nabarmendu dute

Itzea Urkizu Tolosa

Tolosako PSE-EEk herriko alkateak «jauntxokeriaz» jokatu dela salatu du, eta «dekretuz ezarritako» atez ateko sistemaren aurka azaldu da «erabat».

Tolosako Udaleko PSE-EEko zinegotzi eta bozeramale den Jose Ignacio Asensiok, bosgarren edukiontzia agerraldian, zabor biltzetan inguruan lan egiteko batzorde bat osatzea adostu zuela oposizioko EAJrekin: «Batzordea sortzen badute ere, erabateko jauntxokeriaz dekretatu du atez atekoa ezartzea».

tema martxan jartzeak; bosgarren edukiontzia jartzeak, berriz, 100.000 euroko kostua ekarriko luke».

Asensiok eta agerraldian parte hartu zuten PSE-EEko beste hiru kideek, tolosarren gehiengo atez ateko sistemaren «aurka» dagoela baieztatu zuten. Era berean, gogora ekarri nahi izan zuten, Bilduk eta Aralarrek osatzen duten udal gobernuak, zabor biltzetan inguruan lan egiteko batzorde bat osatzea adostu zuela oposizioko EAJrekin: «Batzordea sortzen badute ere, erabateko jauntxokeriaz dekretatu du atez atekoa ezartzea».

«Osasunaren aurka doa»

Tolosako PSE-EEko kideek atez ateko zaborra biltzeko sistema «herritarren osasunaren aurka» doala ere gaineratu zuten agerraldian: «Zaborra hirietako kaleetan ikustea, duela hainbat hamarkada ikusten zen irudia da, eta hemen, zorionez, gainditu genuen aspaldi; atez atekoarekin, ordea, martxan dagoen herrietan, ikus daiteke zer nolako zikinkeria maila dagoen». Jarraian, atez ateko sistema duten Usurbil, Oiartzun eta Hernani bisitatzeko gonbita izatu zuten.



Renedo, Asensio, Blazquez eta Maiza, agerraldian. IMANOL GARCIA LANDA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Ikasleek alkateari beren proposamen eta konpromisoak luzatu dizkiete. ENERTIZ MAIZ

Alegiako San Juan ikastetxeak Agenda 21 hitzarmena sinatu du

Unai Iraola alkateak, ingurumen zentroko teknikariak, ikasleek nahiz irakasleek parte hartu dute ekitaldian

Itzea Urkizu Alegia

Pasa den ostiralean sinatu zuten, Alegiako Udalak eta San Juan ikastetxeak, Eskolako Agenda 21 proiektuari dagokion hitzarmena. Ekitaldian, Alegiako Unai Iraola alkateak, zinegotzi batek, Tolosako Ingurumen Zentroko Teknikariak, San Juan ikastetxeko irakasleek eta hainbat ikasleek ere parte hartu dute.

Alegiako ingurumen teknikariak azaldu zuten, «eskola eta herri jasangarri baten alde lan egin behar dute ikasleek». Bide horretan, eta Eskolako Agenda 21 proiektuarekin lanean ari diren eskualdeko gainerako ikasleak bezala, biodibertsitatea izango da ikasturte honetan landu beharreko gaia.

San Juan ikastetxeko neska-mutilek, eskola barruko jarduek gain, herrian bertan ere lan

egingo dute, herrira begira. Hain zuzen ere, ekainean ikasturtea amaitu aurretik, ikasleek udalarekin itzuli beharko dute, biodibertsitatearen inguruan burutu-tako lan eta jarduerak bertan azaltzeko, eta udalaren aurrean zerbait gogoeta nahiz konpromiso hartzeko; hau oinarri hartuta, zerbait proposamen egingo dizkiete udal ordezkariak. Udalaren lana izango da gero, proposamenak kontuan izan eta lan egitea.

Unai Iraola alkateak eman zuten ongi etorria San Juan ikastetxeko neska-mutilei: «Zuek izango zarete etorkizuneko erueda, eta Eskolako Agenda 21 proiektuaren barruan egiten dituzuen lanak barneratu egin behar dituzue».

Kontzientzia zioa beharrezkoa dela nabarmendu zuten Iraola alkateak, eta ikasleek hitzarmenaren konpromisoak irakurri eta gero, udalak eta ikastetxeko arduradunek akordioa sinatu zuten.

Behin hitzarmenaren aurpegi-formalena amaituta, Alegiako San Juan ikastetxeko gaztetxoek ezustekoa prestatu zute ekitaldirako, eta ura nahiz hondakinak bezalako ingurumen gaiak abia-

puntu hartuta, bertso batzuk abestu zituzten pleno aretoan bertan. Bisita eskertzearekin batera, Unai Iraola alkateak «udalarekin egiten dituzten lanak gogora ekarri zien ikasleei: «Pozgarria da zuek hemen egoitea, eta udala bidelagun izango duzue».

Aralar institutua jada lanean
Alegiako Aralar institutua iazko ikasturtean hasi zen Eskolako Agenda 21 proiektuan parte hartzen. Elikaduraren gaia izan zen orduan jorratu beharrekoa, eta ikasturte amaieran helarazi zit-

Hitzarmenaren bidez eskola eta herri jasangarri baten alde lan egingo dute

kieten beren ondorio eta proposamenak udalari.

Unai Iraolak ikasleek eginiko eskaerak gogoan dituztela nabarmendu zuten pasa den ostiralean, eta udala eskatutakoak bideratzen eta martxan jartzen saiatuko dela; besteak beste, udalarekin Alegian egiten duten azokarekin jarraituko dutela azaldu zuten, eta ikasleen eskaerari jarraitu, udaberriko produktuekin ere beste azoka bat antolatzen ahaleginduko direla, behar bada. Era berean, informazio panelak jartzeko konpromisoa agertu du Iraolak, eta baita herriko komertzioekin biltzeko ere.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Autoa.** Ford Fiesta autoa. Oso egoera onean dago eta eskaintza ona egiten dugu. Deitu 688 681257 zenbakira.

IBARRAKO SENDI EKINTZA TARDUAKEN ERKIDETZARAKO DEIALDI PUBLIKOA

IBARRAKO SENDI EKINTZA Erakundeak zuzendutako sendi hartzaileentzako deialdi publiko batzuk izango dira martxoaren 6 eta 7an, astearteko 7 eta 8etan.

sendiakintza@fubmail.com

Euskal preso eta iheslarien eskubideen alde ariko da Herrira mugimendu berria

Tolosako kultur etxean egingo dute aurkezpen ekitaldia bihar, 19:00etan; herritar oro gonbidatu dute bertara

Asier Imaz

Euskal preso eta iheslarien eskubideen alde lanean ariko den mugimendu berria aurkeztuko dute bihar, 19:00etan, Tolosako kultur etxean. Herrira izeneko mugimenduak eskualdeko hainbat herritan izango ditu ordezkaritzak eta aurkezpen ekitaldian denak elkartuko dira. Horrez gain, herritar guztiak gonbidatu dituzte bertara, mugimendu berriari babesa emateko.

Herrira mugimendua euskal preso eta iheslariak etxeratzea helburu duen mugimendua dela azaldu dute bertako kideek. «Otsailaren 5ean eman zen ezagutzera Donostiako Kursalean. Egin Dezagun Bidea ekimenak herritarrengan izandako harrera onak, lortutako inplikazioak eta presoan gaiarekiko sentsibilizazioak, edo urtarilaren 7ko mobilizazio kolosalak, presoan gaia Euskal Herriko agenda politikoan letra handiz idatzia utzi zuen». Bide horri jarraituz, Herriratik



Herrira mugimendu berriaren irudia hau izango da. HITZA

azaldu dutenez, «presoan afera-aren inguruan, ekimen batetik haratago mugimendu zabal eta itxaropentsu baten beharra ikusi da, eta horri erantzuten dio mugimendu berri honen sorrerak».

Herriratik azaldu dutenez, azkenaldian eskualdean euskal presoan aldeko hainbat ekitaldi antolatuta dira, «eta Tolosaldeko herritar ugari hartu dute parte ekimen horietan. Argi geratu da denon ur tanten bidez, olatu handi bat sortzeko gai garela. Olatu handi hori izango da Herrira, preso eta iheslariak etxeratuko dituen olatua». Baina mugimendu berria, olatua izateaz gain, norabidea ere badela aipatu dute: «To-

losaldean azken boladan erakutsi dugun indarra, norabide onean jartzeko garaia da, eta Herrira da norabide hori».

Aurrera begira, aurkezpen ekitaldiak bezala, mugimenduak berak ere atek zabalik dituela azaldu dute Herriratik: «Euskal preso eta iheslarien eskubideen alde dagoen orori irekita dagoen mugimendua da. Herritarrei entzun, dinamika freskoak aurkeztu eta herritarrekin batera aritu nahi duen mugimendua da. Herritarrek baikara espetxe politika anker hau aldatu eta behingoz dagoen eskubideen jabe presoak etxera ekartzeko giltza dugunak».

Ertzaintzak hainbat lagun atxilotu ditu lapurretatik

Villabonako lokal baten barruan atzeman ditu Ertzaintzak, ondoren, euren ibilgailua ere arakatu dute

Erredakzioa

Ertzaintzak hamar lagun atxilotu zituen atzo goizaldean Villabonan, Zizurkilen, Lasarte-Orian eta Erreterian lapurretak egin zituztelakoan.

Ustezko lehen lapurreta 02:00etan izan zela azaldu zuten Ertzaintzatik, Lasarte-Orian. Bulegoak eta apartamentuak dituen

eraikin batean lau lagun atzeman zituzten, eta eraikinetik gertu zegoen furgoneta baten ondoan atxilotu zituzten. Furgonetaren barruan hainbat material aurkitu zituen Ertzaintzak, eta eraikinetiko bi ate behartuta zeudela frogatu zuten ondoren, beti ere Eusko Jauriaritzako Herrizaingo sailetik azaldutakoaren arabera. Eskualdeko atxilotetako 04:00ak inguruan egin zituen Ertzaintzak. Ordu horretan, lokal baten barruan hiru lagun atzeman zituzten ertzainek, lapurtutako materiala zutelakoan. Ondoren, euren ibilgailua ere arakatu zutela azaldu zuten Herrizaingo sailetik.

Irudia ◊ Villabona



LIXONE LANTEGIA IKUSIZ

Villabonako Jesusen Bihotza Ikastolako LH 2. mailako ikasleak Lixone lantegira joan ziren xaboiaren ekoizpen prozesua ikustera. Ikastolatik azaldu dutenez, ikasleek azalpen guztiak arretaz jarraitu zituzten, eta horrez gain, asko ikasi zuten. HITZA

Margoketa lantzeko aukera, Anoetan

Ikastaroan izena emateko epea ostiralean amaituko da; udaletxean eta liburutegian egin behar da

A. Imaz Anoeta

Anoetako Udalak dekorazio-margoketa gertutik ezagutzeko aukera jarri nahi izan die inguruko herritarrei. Horretarako, ikastaroa antolatuta du, eta bertan izena emateko epea hilaren 9an, ostira-

lean, amaituko da. Ikastaroan parte hartu nahi dutenek bi aukera dituzte matrikula egiteko: goizez udaletxera joan beharko dute, eta arratsaldean liburutegira.

Ikastaroa hilaren 15ean hasiko da, eta ekainera arte iraungo du. Ostegunetan elkartuko dira margoketaren inguruan aritzeko. Hiler, 27 euro ordaindu beharko dituzte izena ematen dutenek, horrez gain, materialaren kostua gehitu behar da.

Ikastaro egunak bi ordukoak izango dira, hau da, 17:15etik 19:15erakoak.

Atez ateko sistemaren alde egingo du Villabonako Udalak

Herriko ezker abertzaleak herritarrei biharko bilkurara agertzeko eskatu die

A. Imaz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako udalbatzak bihar, hilak 7, ez ohiko osoko bilkura egingo du udaletxeko batzar aretoan, 19:00etan. Gai zerrenda bost puntuk osatzen dute, eta horien artean, hondakinen kudeaketari buruzko bi mozio daude: Bildurena eta EAJrena. Udalbatzan lehenak gehiengo direnez, atez atekoaren aldeko erabakia aurreikusten da. Gauzak horrela, hondakinen bilketa sistema aldatzeko asmoa agertzen duen eskualdeko bigarren herria izango litzateke Amasa-Villabona, Zizur-

kilen iragan astean hartu baituzten erabaki hori. Biharko ez ohiko bilkuran, Alderdi Popularraren lan erreforma eta Emakumeen Nazioarteko Eguneko hainbat proposamen ere aztertuko dituzte, EAJk eta PSE-EEk aurkeztuta.

Bilkurara joateko deialdia

Amasa-Villabonako ezker abertzaleak herritarrei bilkurara joatea eskatu die, zaborraren kudeaketa berriaren garrantzia azpimarratuz, eta Bilduko hautekietan babes osoa erakutsiaz: «Gure herriaren gehiengoak argi erakutsi izan du ez duela errausketa plantarik nahi, eta horretarako guztiz beharrezkoa izango da atez ateko zabor bilketa martxan jartzea». Erabaki hau, albiste «pozgarria» da ezker abertzalearentzat: «Amasa-Villabona, Gipuzkoako beste hainbat udalerrirekin batera, eredu izango da

zaborren kudeaketan. Beste herrietako esperientziek argi erakusten diguten bezala, atez atekoa da gehien birziklatzea ahalbidetzen duen sistema. Hondakinen %85etik gora birziklatzea da gure helburua, hori lortuta Gipuzkoan ez dugu errausketa plantarik beharko, eta herritarren osasuna eta gure ingurumena babes-teko pausu garrantzitsua emango dugu».

EAJren eta PSE-EEren jarrera ere salatu nahi izan du ezker abertzaleak, «intoxikazio kanpaina bortitza» martxan jartzeagatik: «Oso garestia dela, ezingo dugula arrainik jan, herria zaborrez bete delako, arratoi izugarriak kaleetatik ibiliko direla eta abar. Guztiak gezur borobilak! Pisuzko argudiorik ez dute eta zaborren kudeaketan alternatiba bakarra eskaintzen digute: Errauskailua».

Ibarra



DANTZARI GAZTEEN SAIOAK

Aurresku eta Soinu Zahar Txapelketa egin dute. Lehenengo aldiz, Ibarra, 12 eta 16 urte bitarteko 13 mutilak eta 20 neskek hartu dute parte. Mutiletan, Beñat Salegi orerestarra, Almar Odriozola Ibararra eta Antz Olarte olartzuarra izan dira hiru lehenak. Nesketan, Leire Amiano lezoñak, Andrea Arregi elgoibartarrak eta Miren Astigarra- ga elgoibartarrak lortu dituzte lehen hiru postuak. [...](#)

Leitza



KILIKLON, AMAZABALEN

Leitzako haurrek Kiliklon parkeaz gozatu ahal izan dute larunbatean, Amazabal kiroldegian. Hainbat entretenimendu izan dituzte: puz- garriak, antzerkiak, jolasak, txokolate jatea... [...](#)

Tolosan etxe adosatuak sailgatzen eguzkitasun, lau gela, bi bainugelako, komunak, egongela-argitza hondoa, sukaldaria, bi autoentzako garajea, hokoa, gordinak eta trasterokua.

Interesak, deitu 678 267 657 telefono zarteko.

Leitza



500 LAGUN, TOPAKETA FEMINISTETAN

Leitzan Emakume Abertzaleen V. Topaketa Feministak antolatuta dituzte Bilgune Feministako kideek. 500 lagunetik gora elkartu dira bertan, hiru egunez. Jaso duten ondorioetako batean zehazten denez, «leiburua Euskal Herriaren independentzia izanik, horren lorpenarako prozesuan mugimendu feminista erakarpina ezinbestekoa da». [...](#)

Anoeta



PAREKIDETASUNA LANDU DUTE

Anoetako gazteetan parekidetasunari buruzko tailerra egin dute. Bertan dozena bat gazte parte hartu dute. Gea Berdintasunak dinamizatuta. Lan eta kasketen arloan, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak zergatik dauden eta nola sartu diren aztertu eta hausnartu dute. [...](#)

Tolosa



NORVEGIARREN PARKEAN, MAGNOLIAK

Zuhaitz Eguna ospatu dute larunbatean Tolosan, Norvegiarren parkean, lurre auzoan. 18 xulan magnolia (Magnolia Deudata) landatu dituzte; hori koloreko loreak ematen dituzte. Aurretik egoera txarrean zeuden lau zuhaitz kendu dituzte. Haurrak eta udaleko zenbait zinegotzi aritu dira landaketak egiten. [...](#)

Ibarra



MUNDUKO TXAPELDUNEI OMENALDIA

Ibarrako sokatira talde mistoak urteko domina lortu berri du Eskozian jokatu den munduko txapelketan. Hori dela eta, udalari omenaldia egin dio taldeari. Hasteke, Auzerko dantzariak ongietorria egin diete plazan. Ondoren, udaletxean Jexux Peñagarikano alkateak bertsoa eskaini ostean, txapelketako argazkiak kusi dituzte iratzaleek eta bertaratu diren herritarrek. [...](#)

Amasa-Villabona



ONGIETORRI JENDETSUA ETXEBERRIARI

Lander Etxeberriak ongietorri jendetsua jaso zuen ostiral arratsaldian Villabonan. Berdura plaza jendetz bete zen, eta ondoren izan zituen bere sentimendukoak, lagunak, preso ohiak eta hainbat herritar. Etxeberria otsalaren 16an aske utzi zuen berma ordainduta. [...](#)

Alegia



TXINTXARRIREN DOINUAK, IGELDON

Emanaldi sumea eskaini zuen Txintxarri abesbatzak Igeloko Pedro Deunaren parrokiari, Joan den larunbatean. Bertako Lezkari abesbatzarekin batera abestu zuen, eta entzuleak gogo onez egon ziren abestiak entzuten; euren txaloak izan ziren horren adierazgarri. [...](#)

ASTE HONETAKO ESKAINTZAKI!

- DIRA KOLTZURAK**
 BERRUNDOZKOTZAKO TXINTXARRIARI
 Leitzakoak: 10€
 Tolosaldekoak: 12€
 Leiztaldekoak: 14€
- SHUYANA**
 LAGUN HONETAKO
 BERRUNDOZKOTZAKO
 Leitzakoak: 10€
 Tolosaldekoak: 12€
 Leiztaldekoak: 14€
- TOLOSA: NOOOR KARTING**
 BERRUNDOZKOTZAKO
 Leitzakoak: 10€
 Tolosaldekoak: 12€
 Leiztaldekoak: 14€
- VILLABONA OPTIKA**
 BERRUNDOZKOTZAKO
 Leitzakoak: 10€
 Tolosaldekoak: 12€
 Leiztaldekoak: 14€

Mota dagokion kupoa, burketa deretan eta gaztea abantailak

ESKAINTZAKI!

Kirolak

↓ **Kirol emaitzak**

PILOTA

LEHEN MAILAKO BINAKAKO TXAPELKETA

Arretxe II-Begino	22
Irujo-Barriola	15
Bengoetxea VI-Apr aiz	22
Lasa-Pascual	10

Sailkapena

1. Olaizola II-Beroiz	11-0
2. Berasaluze-Albisu	6-5
3. Titin III-Merino	6-5
4. Xala-Laskurain	6-5
5. Bengoetxea VI-Apr aiz	6-5
6. Irujo-Barriola	5-6

Hurrengo partidak

Mrtnez Irujo-Barriola
Aritz Lasa-Zubieta
Bengoetxea VI-Apr aiz
Olaizola II-Beroiz

BIGARRREN MAILAKO BINAKAKO TXAPELKETA

Jaunarena-Cecilio 19
Rico IV-Untoria 22
Olazabal-Larrinaga 22
Tainta-Zabala 12

Sailkapena

1. Jaunarena-Cecilio	7-2
2. Olazabal-Larrinaga	7-2
3. Rico IV-Untoria	6-4

Hurrengo partidak

Urrutikoetxea-Iza
Olazabal-Larrinaga
Jaunarena-Cecilio
Lemuno-Aretxabaleta

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA 24. jardunaldia
Tolosa CF-Pasaia 2-2

Sailkapena

1. Anaitasuna	50p
2. Real Union	44p
3. Tolosa	43p

Hurrengo jardunaldia

Aloña Mendi-Tolosa CF

ERREGIONAL PREFERENTEA 22. jardunaldia

Lehen taldea
Mundarro-Tolosa B 0-1

Sailkapena

1. Touring	53p
2. Ostadar	52p
3. Tolosa B	46p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa B-Mariño

Bigarren taldea

Getariako Keta-Intxurre 4-1

Sailkapena

1. Lagun Onak	40p
2. Getariako KETA	40p
3. Zumaiako	38p
16. Intxurre	12p

Hurrengo jardunaldia

Intxurre-Ordizia

ARETO FUTBOLA

BIGARRREN B MAILA 19. jardunaldia
Laskorain-Pinseque 4-8

Sailkapena

1. Pinseque	39p.
2. Ebrosala	39p.
3. Kirol Sport	33p.
4. La Bastida	32p.
13. Laskorain Ikastola	14p.

Hurrengo jardunaldia

Zierbana-Laskorain

HIRUGARRREN MAILA 22. jardunaldia

Egintza-Ibarra 1-9

Sailkapena

1. Ibarra	57p.
2. Sestao	50p.
3. Aurrera Vitoria	44p.
10. Egintza Deportes Lakuntza	28p

Hurrengo jardunaldia

Ibarra-Santurtzi
Soloarte-Egintza

EUSKAL LIGA 22. jardunaldia

Berri Otxoa-Hirukide 5-5
Eskolapioak-Eskoriatza 4-2

Sailkapena

1. Goierrri	48p.
2. Tolargi	46p.
3. Mamarigako	46p.
4. Tolosala Hirukide	43p.
5. Uxo	37p.
6. Isu Leihoak	36p.
7. Eskolapioak	30p.

Hurrengo jardunaldia

Eskolapioak, atsedentaldia
Hirukide-Mamarigako
Kurutzia-Tolargi

Igor Aranburuk eta Maider Gaztañagak Euskadiko Txapelketa irabazi dute

Mahala Tolosaldeko Triatloi taldeak emaitza bikainak lortu ditu Erroñkari Ibarra neguko proban



Aranburu, Gaztañaga, Garmendia eta Sarasola. HITZA

Eneritz Maiz

Erroñkari Ibarra Neguko Triatloi proba jokatu zen Isaban, hereneun. Euskadiko Txapelketa zegoen jokoa, eta Mahala Tolosaldeko Triatloi Taldeko kideek «seku-lako emaitzak» lortu zituzten bertan. Euskadiko Txapelketatik hiru domina lepoan hartuta itzuli ziren etxera, bi urrezko eta zilarrezko batekin, hain zuzen ere. Igor Aranburu tolosarra Euskadiko txapelkun geratu zen, proban bosgarren postuan amaitu ondoren. Maider Gaztañagak ere lasterketa bikaina egin zuen Isaban, eta horri esker, Euskadiko txapelkun berria da. Gaztañagak, gainera, Isaban jokatu zen proba

irabaztea lortu zuen. Beteranoen mailan, Joxemari Garmendia ikaztegiarrak maila polita erakutsi zuen, izan ere, proba hemezortzigarren postuan amaitu zuen, eta emaitza honek Euskadiko txapelkunorde izateko balio izan zion bere mailan. Parte hartzaileek, Isaban, guz-

tira korrika 8 kilometro egin behar izan zituzten, 30 kilometro bizikletan eta 10 kilometro eskietan. Mahala Tolosaldeko Triatloi Taldea historia egiten ari da. 23 urteetan taldeak lortu dituen emaitzarik onenak izan ziren hereneun lortutakoak.

Ainhoa Garmendia alegiarrak Promozio Sariko finala galdu du

IX. Berria Txapelketan Aurrera Saiazek finalerdietarako txartela lortu du, Huarte kanpoan utzita



Aurrera Saiazeko pilotariak, IX. Berria Txapelketan. HITZA

A. Imaz

Emakumeen Gomazko Paletako Kutxa Sariaren finalak jokatu ziren igandean, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Promozio Saria irabazteko lehian, Alegiako Ainhoa Garmendia zegoen, Semperrekin bikotea osatuz. Aurkariak, ordea, gehiago izan ziren, eta txapela Andueza-Ugaldek irabazi zuten, 30-23ko emaitzarekin.

Garmendiak ligaxka polita jokatu du, baina finalean asmatu ezinik ibili zen. Horrez gain, Semper bere bikotea erdi gaixorik zegoen, eta Garmendiak hartu behar izan zuen bikotearen pisua. Indartsu hasi ziren arren, maila hori ezin izan zuten mantendu partida osoan zehar, eta azkenean, txapelketa sendoa egin duen Andueza-Ugaldek irabazi zuten finala.

Promozio Sariaren ondoren, Kutxa Sari Nagusiko finala jokatu zuten Muneta-Bordagarayk

eta Housset-Serre bikoteek. Lehena nagusitu ziren, 30-21eko emaitzarekin.

Aurrera Saiazek, 2-1ekoa

IX. Berria Txapelketaren final laurdenetako partidak jokatu zituzten Aurrera Saiazeko pilotariak, igandean. Eskualdekoek aurkari zaila zuten Beotibarren, Huarte ahaltsua. Hiru partidetik bi irabazi zituzten Aurrera Saiazekoek, eta nagusietan ere jaun eta jabe izan zirenez, aurrera

egiteko txartela lortu zuten, uste baino errazago.

Kadeteetan jaso zuen lehiako porrot bakarra Aurrera Saiazek, Chiapuso-Aburuzak 22-20 galdu baitzuten. Jubeniletan Labaka-Elustondok erakustaldia eskaini zuten, 22-5eko emaitza lortuaz. Nagusien mailan, Urbieta II-Telletxeak 22-10eko garaipena lortu zuten azkenik.

Aurrera Saiazekin batera, Galdakaoko Adiskidek lortu du finalerdietarako txartela.

LANGILEENTZAT ETA LANGABETUENTZAT IKASTAROA

TOLOSALDEA Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuak adierazten du:

Martxoaren 19an, "Irabi-telebista seinaleen jasotze eta banatze instalazioen muntaketa (80or)", "Klimatizazio eta aireztatzen instalazioen muntaketa (80or)", "ACCES, oinarritzailea (50or)" eta "Kollaborazioen kudeaketa (20or)", ikastaroak hasten direla eta lekua dagokien, ikastaroak langile eta langabetuentzat zuzenduta daude eta doanekoak dira.

Izen ematea, ikastetxean, 943-651147.

RAFA ALBISU LASA

Otaegik eta Otañok espero ez zuten txapela lortu dute urrezko lehiaketan

Zutikako lanean denbora galdu eta gero, iraupen proban aurrea hartu zieten Arrospide eta Mugertza II.ari

Eneritz Maiz

Joseba Otaegik eta Unai Otañok urrezko mailako txapela eskuratu dute. Ez batak eta ez besteak ez zuten espero txapelketa honetan finalera iritsiko zirenik, eta are gutxiago txapela jantziko zutenik. Zutikakoan egindako lan txarri buelta eman ahal izateko, lan asko egin behar izan zuten. Azken saioan, hau da, iraupen proban, Arrospide eta Mugertza III.a atzean uztea lortu zuten. Binakako txapelketan faborito ziren, eta aurreikuspenak betetz jantzi dute txapela.

Joseba Otaegi zizurkildarra eta Unai Otaño ibartarra «oso gustura» geratu dira txapelketan erakutsi duten mailarekin, eta eskuratu duten txapelarekin. «Txapelketa hasieran inondik inora ez genuen espero hona iritsiko ginenik», adierazi du Otaegik. Otañok, berriz, «finalera iristea gure-



Otaño zutikako enborra moztzen, Otañoren begiradapean. IBON ERRAZU

tzat ezustekoa izan da», azaldu du. «Sari bat izan da, eta lasai eta gozatzera atera ginen».

Zizurkildarrak ez zuten faboritotzat bere burua: «Nire ustez aurkariak faboritoago ziren; ez zuten eraginik izan gure lanean». Zutikako enborra dute Otaegik eta Otañok ahulezia. «Gure hu-

tsunea dugu zutikako enborrean, eta lan txarra egin genuen denbora asko galduz», dio Otaegik.

Txapelketa hasi zenetik, ordea, hobetzen joan dira, eta ahalik eta denbora gutxiengaltzea zuten helburu eskualdekoek. Lehen bi lanetan, Anjel Arrospidek eta Ugaitz Mugertzak aurrea hartu

zieten segundoak alde hartuz. «Lehen lanak ikusita, eta zutikakoan galdutako denbora tarte kontuan hartuta zaila ikusten nuen, baina guri ondo joaten zai-guna iraupen proba da, eta esperantza nuen», dio Otaegik.

Zutikako enborrean ostean, bi 60 ontzako eta bi 45 ontzako moztu behar izan zituzten, eta galdutako denbora tarte txikitzea lortu zuten. «Galdutako denbora gutxitzeak morala igo zidan, eta azken saioan esperantza nuen», gaineratu du Unai Otaño ibartarra. Iraupen proban, lau kana erdiko, bi 60 ontzako eta bi oinbiko moztu behar izan zituzten. Otañok eta Otaegik, 15 minutu eta 50 segundo behar izan zituzten, eta aurkariak 18 minutu eta 07 segundo. Azkenean, lan guztiak 27 minutu eta 48 segundotan amaitu zituzten irabazleek, eta Arrospide leaburuarrak eta Mugertza III.ak 29 minutu eta 34 segundo behar izan zituzten.

Zizukildarrari eta ibartarrari txapela janzteak «ilusioa» egin die, eta aurrera egiteko «indarra» eman die txapelak. Orain atsedean pixka bat hartuko dute, eta banakako txapelketan sartuko dira apiriletik aurrera.

Liderraren aurka 4-8 galdu du Laskorain ikastolak, Usabalen

Ligako lehen fasea irabazteko hautagai nagusiak dira Pinseque taldeko kideak, eta erakustaldia eman dute

Iñaki Egizabal Tolosa

Ebrosalarekin batera sailkapenaren buru den Pinsequeren bisita jaso zuen Laskorainek, larunbatean. Erronkaren zailtasunaren jakitun, bi argudio errepikatzen zituzten behin eta berriz, itxaropena suspertu nahirik: «Ebrosal bere dinketarekin konformatu behar izan zuen Usabalen» eta «lehen itzulian Pinsequen garaile irten ginen».

Argudio eta itxaropen hauek, ordea, ez zuten oraingoan gehiegi irauten, eta 4-8 erori ziren ikastola-koak. Lehiaketaren fase aurreratu honetan, argi dago jada txapelketa Aragoiko bi talde horien artean erabakiko dela, eta Tolosan ikusitakoaren arabera, Zaragoza hiriburutik hoge minututara kokatzen den Pinsequera joan daiteke txapela.

Teknika eta fisiko bikaineko jokalariz hornituak, baloiarekin bikain agertu ziren nola joko posizionalean nola estrategian, baina are eta bikainagoa izan zen baloirik gabe emaniko erakustaldia. Tolosarentzat, sufrimendu handiko arratsaldea bihurtu zen. Sekula ez da gustukoa hain nabarmen gaunditua izatea, baina ezin zae ezertxo ere leporatu eta tokatzen zitzaiena bete zutela aitortu behar da. Kolore bakarreko lehen zatia izan zen, eta 0-3 joan ziren aldagelatar; Villanuevak zozketatutako ardo sortak ere ez zuten gozatu atsedaldi mikatza, eta gol askoko bigarren zatia. Azpimarratu, golegile laskoraindarrak Gil eta Murgi, Murgi eta Gil izan zirela, bina golekin bakoitza.

Segundo bakar batek eman dio txapela Saralegiri

Julen Larrearekin lortu du garaipena Eneko Saralegi leitzarrak; gazteen mailakoa oso final orekatua izan da

E. Maiz

Eneko Saralegi leitzar gazteak, Julen Larrea lagun zuela lortu zuen gazteen mailako txapela janztea. Segundo bakar baten al-

dea baino ez zuten izan txapeldunek. Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan, final ederraz eta orekatuaz gozatu ahal izan zen.

Lau lan ezberdin egin behar izan zituzten gazteek, eta lehen hiruretan aurretik joan ziren Saralegi eta Larrea III.a. Azken lana hasi aurretik, 18 segundoko aldea zuten. Azken proban, ordea, Otaño eta Etxeberriak aurrea hartu zieten, baina 17 segundo aldea ateratzea lortu zuten, txapela aurkarieki utzi.



Saralegi eta Larrea gazteak, txapela soinean dutela. HITZA

Hilberriak

MARIA VICTORIA ORIO MORENO

(Mari Paz gure lankidearen ama)

Une latz hauetan bat egiten dugu familiarren saminarekin

Bessaingo Udal Euskaltzagia



Bessain, 2012ko martxoaren 6a

RAIMON GAMAYO CONTRERAS

Zarena bezalakoa izan zarelako, izatea zor dizugu. Mita esker eta adonik ez, Raimon

Aurtzaka Dantza Taldea



Bessain, 2012ko martxoaren 6a



ALFONTSO MINTEGI GIL

Litezkeen gauzarik ederrenak ez dira. Mezuak sakonienak ez dira oraindik esan.

LAB-CAF sail sindikala

Bessain, 2012ko martxoaren 6a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leizalaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agenda

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** Hirukide ikastetxeak *Adimen anitzak* izeneko hitzaldia antolatu du gaurko. 18:00etan izango da Hirukiden (San Frantzisko pasealekua, 12) eta Jose Antonio Gonzalez izango da hizlaria.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Mendi Film Festival jaialdiako hamar filma izango dira ikusgai, Leidor aretoan, gaur eta bihar, 19:30etik 22:00ak arte. Gaur *Arditan, Fly or die, Coldeta Transantartika 2011* ikusi ahal izango dira; eta bihar, *The hardest of the Alps, Wild water, Linea continua, The Swiss machine, Next time Inshallah* eta *Hastapenetara* itzulara.


ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** *Gelede mask* izeneko erakusketa Topic zentroan ekainaren 10era arte. Afrikako yoruga komunitatean Gelede izeneko zeremonian erabiltzen dituen maskarak dira ikusi ahal direnak.



■ **Alegia.** Nerea Ugarteren sormen lanak martxoaren 19ra bitarte, Jubilatuen tabernan.

Irudia Inauterietako Argazki Lehiaketa



TOLOSATIK MEXIKORA, SALTO BATEAN

Geroz eta gutxiago falta da Inauterietako Argazki Lehiaketa bukatzeko. Irudiak bidaltzeko azken eguna ostirala izango da eta irabazleak Astobieta etxean bi lagunentzako gau bateko egonaldia eskuratuko du. thargazkiak@hitza.info helbidera

bidali behar dira argazkiak. Gaur, ezkerretik eskuinera eta goitik behera, Amaia Pagolaren, Luis Ramon Iglesiasen, Aratz Aguadoren, Milla Garcia de Iturrasparen eta Amaia Iglesiasen lanak ikusi daitezke. HITZA

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!
Laiene Iturbe Usabiaga (Irura).
Atzo urtebete. Zorionak Uxue eta gurasoen partetik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●● **agurrak**



**SAN SEBASTIAN
GIPUZKOA BASKET
S.A.D.**

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pareta** du

Martxoak 11, igandea
12:30ean
Donostiako Irunben

**LAGUN ARO GBC
CAJA LABORAL
BASKONIA**



Zozketan parte hartzeko deia: 943 65 56 95



sarrerak

